



JUNE FERNANDEZ

**"FEMINISMOARI ESKER,
KAZETARIOK BEGIRADA
ZABALDU DUGU"**



Erdialdean
erosketak egitea
erraz jartzen
dizugu

BADUZU LEKURIK

Santa Barbarako aparkalekuaren aldi baterako itxiera dela eta



DOAN
APARKATZEKO
TXARTELAK

Artium eta Iradier
Arenako aparkale-
kuetan.
20€-tik gorako
erosketengatik



APARKALEKU
AZKARRA
15 min.

DOAKO zenbait
leku 15 minutuz



EROSITAKOA
BIZIKLETAZ
ERAMANGO
DIZUGU

Erosketak
etxera bizikletaz
eramateko
zerbitzua



TOKIKO
SALTOKIEI
BURUZKO
INFORMAZIOA

Bi informazio-leku,
abantailez baliatu
ahal izateko



Ajuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Española y Promoción de Comercio y Servicios de Base



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ALEA 169

2018-10-26 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

E. UGARTE

June Fernandez.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean:** argazki-kazetaritza irudi onenak, Gasteizen.
- 10 **Protagonista:** June Fernandez, Pikara aldizkariko zuzendaria.
- 14 **Iritzia:** Irati Maraño.
- 15 **Gutuna:** Aroa Arrizubieta, Araba Euskaraz 2019
- 16 **Sarean:** #MTV.
- 18 **Gizartea:** Armentia-2 putzuari buruzko galdeketa, bertan behera.
- 19 **Gizartea:** etorkinak ez dira arazo Araban.
- 20 **Esanak eta datuak.**
- 21 **Laburrak.**
- 22 **Kultura:** estreinaldiekin dator Bernaola jaialdia.
- 24 **Kultura:** bisitaldiak Aramaion, Amillena elkartearekin.
- 26 **Oreka:** 'Irain birtualen aurka', Arrate Sanchez.
- 28 **Gure Bazterrak:** Urizaharra.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estibu Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Irati Maraño eta Arrate Sanchez (OrekaIT).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Zurrunbiloan etena egiteko, hamaika irudi

Mundu osoko errealitateen lekukotzak biltzen dituen World Press Photo argazki-kazetaritza erakusketa garrantzitsuena Gasteizen da, azaroaren 18ra arte; 73.000 argazkiren arteik aukeratutako 152 onenak ikus daitezke Montehermoso kulturuneko ur-biltegian.


Testua: **Anakoz Amenabar**

Argazki eta irudiek gainezka egiten duten egun hauetan, etenaldia egin eta gogoeta egiteko hamaika arrazoi aurki daitezke World Press Photo erakusketan. "Gure eginbeharra herritarrak eta garrantzitsuak diren istorioak konektatzea da, eta horretarako garrantzitsua da profesional aske eta independenteen lana", azaldu du Carla Vlaun erakusketako arduradunak Gasteizen egindako agerraldian. Zeregin horretan 1955. urtetik ari da fotokazetaritza lehiaketa garrantzitsuena, eta, aurten ere, eskura izango dute Montehermosoko ur-biltegiara gerturatzen direnek. 152 argazki onenak izango dira hilabete batez.

Ingurua edo arriskua direla eta, muturreko baldintzatan jaso diren argazkiak aurkituko ditu bisitariak. Eta, horien artean, ezezagunak diren istorio gehiago daude aurten, Paco Valderrama Gasteizko erakusketa sustatzaileak: "Indarkeria edota bazterketa irudi gordinekin batera, urtero izaten diren moduan, oraingoan istorio ezezagunak aurkitu dute txokoa, ezezagunak baina inguruan ditugunak". Magnus Wennmanek erresignazio-sindromeari buruz egin duen erreportajea, edota Anna Boylazisek Zanzibarren igerian ikasten ari diren emakumeen ingurukoa izan daitezke horren erakusgarri.

Istorioetan murgiltzeko, ohi den moduan, bisitaldi gidatuak antolatu dituzte, eta saritutako hainbat argazkilari ere izango dira euren lanen berri emateko; Javier Arcenillasek urriaren 27an parte hartuko du, eta Ronaldo Schemidtek azaroaren 4an. ■

Kamerungo Kamimi Tontines haurra, bere bularrak ezkututzen, amak harri bero batekin lisatu ondoren. / HEBA KHAMIS





RONALDO SCHEMIDT, AGENCE FRANCE PRESSE

Protestak, Venezuelan

Ronaldo Schemidt argazkilariak irabazi du aurtengo World Press Photo saria, 2017ko maiatzaren 3an egindako argazkiagatik. Venezuelako oposizioko manifestariek sua piztu zuten Caracasen izandako protestaldietan, eta horietako batean harrapatuta geratu zen Jose Victor Salazar gaztea. Oposizioko liderrek protesta jendetsuak antolatu zituzten hauteskunde aurreratuak eskatzeko.



ANNA BOYLAZIS

Igerian ikasten

Tradizionalki, Zanzibarko artxipelagoan bizi diren neskak ez dituzte igeri egiten ikastera animatzen, kultura islamiko kontserbadorearen eraginez. Hala ere, iparraldeko muturrean, Panje ("arrain handia" esan nahi du) proiektuak inguru horretako emakumeei bainujantzi luzeekin ikasteko aukera ematen die. Kijiniko lehen hezkuntzako eskolako umeak ageri dira argazkian, igeri egiten eta erreskateak egiten ikasten.



GEORGE STEINMETZ, NATIONAL GEOGRAPHIC

Haragi kontsumoa

Diru-sarrerak areagotzearekin batera, dietan ere aldaketak izan dira Txinan; besteak beste, haragiaren, esnekien eta produktu prozesatuaren eskaera areagotu egin da. Txinak planetako nekazaritza-lurren %12 inguru erabili behar ditu mundu osoko biztanleriaren %19 inguru elikatzeko. Argazkian, haragia prozesatzeko lantegi bat ikus daiteke, Jinluo Meat-eko mozte-areto nagusia, Shandongean, Txina ekialdean.

Errinozero zuria

Afrika hegoaldeko errinozero zuriak desagertzeaz daude. Haren adarren hautsa oso preziatua da, bereziki Vietnamen eta Txinan, sendagarria omen delako, eta droga moduan beste hainbat lekutan. Adar kiloaren prezioa 20.000 eta 50.000 euro artekoa izatera ere iristen da. Argazkian, errinozero zuri gazte bat, sedatuta eta begiak estalita dituela, Okavangoko deltan aske utzi baino lehenago, isileko ehiztarietatik babesteko.



NEIL ALDRIDGE

Arrazakeria, AEBetan

Arrazakeriaren kontrako manifestazio bat egiten ari zirela, gizon batek bere autoa furgoneta baten kontra eta pilotuta zegoen jendearen kontra jo zuen Charlottesvillen (Virginia, AEB), 2017ko abuztuaren 12an. Ondorioz, lagun bat hil eta 19 zauritu izan ziren. Konfederazioaren ikur zen Robert E. Leeren irudia kentzeko planen kontra manifestaldiak izan ziren, eta beste hainbeste mobilizazio manifestazio arrazisten kontra.



RYAN KELLY, THE DAILY PROGRESS

Handizkako nekazaritza

Herbehereetan ez dituzte handizkako nekazaritzako ohiko baliabideak; baina, baliolari dagokionez, elikagaien ustiapenari dagokionez, bigarren herrialderik garrantzitsuen da, han garatu diren nekazaritza-jarduera berritzaileei esker. Argazkian, Wageningeneko Ruud Velo AlgaePARC guneko fotobioerreaktore bat ageri da; mikroalgak hazten dituzte bertan, argiaren estimulazioarekin lagunduta.



LUCA LOCATELLI, NATIONAL GEOGRAPHIC



DANIEL BELTRÁ

Deforestazioa

Amazoniako deforestazioa nabarmen areagotu zen 2016. urtean, zurgintzako, meatzaritzako eta nekazaritzako enpresen eta enpresa hidroelektriko handien presioagatik; 1995 eta 2004an izan zuen inoizko deforestazio tasa altuena. Milaka milioi tona karbono dioxido xurgatzen ditu urtero Amazoniak, eta klima-orekatzaile lanak egiten ditu. Argazkian, legez kontrako urre meategi bat ikus daiteke, Amapan.



JUAN D. ARREDONDO

Trantsizio eremuak

50 urte baino gehiago iraun duen gatazkaren ostean, FARC-ek armak utzi eta gerrillariak oihaneko kanpamenduetatik alde egin dute herrialdean banatuta dauden "trantsizio eremuetara". Borroka armatua utzi eta bizitza zibilerako urratsa egiten ari dira pixkanaka horietan. Argazkian, FARC-ek La Elvira trantsizio eremuan duen emakumezko futbol taldeko kideak beren entrenatzailearen jarraibideak entzuteko zain.



KADIR VON LOUHIJZEN

Zaborra, bazterretan

Gizakiak inoiz baino zabor gehiago sortzen du. Munduko Bankuaren lkerketa baten arabera, planetak 3,5 milioi tona hondakin solido sortzen ditu egunean, duela mende bat baino hamar aldiz gehiago. Munduko Ekonomia Foroak dioenez, 2050erako, ozeanoetan arrain baino plastiko gehiago egongo da. New York da urtean hondakin gehien sortzen dituen hiria, – argazkian–, 33 milioi bat tona urtean.



BEZa*

oparituruko
dizugu
denean

Zure
EROSKI club
txartelean
itzuliko dizugu



* Kutxan ordaintzean EROSKI Club txartela erabiltza, egindako erosketaren BEZari dagokion zenbatekoa sartuko dizugu txartelarekin lotutako EROSKI Club kontuan. **EROSKI Club kontuan sar daitezkeen gehieneko zenbatekoa: 250 euro.** Promozioa EROSKI Hipermerkatu eta Supermerkatuetan, eta EROSKI online supermerkatuan izango da baliozkoa. Promozioan ez dira bane hartuko testu-liburuak, esperientzia-paketeak, telefonoen kargak, E-pay txartelak (aurrordainketa-txartelak), erretelatu digitala eta fidelizazio-promozioen bidez (puntu bidezkoak edo parekoak) eskuratu daitezkeen produktuak. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko saltokian.

40€-tik gorako erosketa
eginez gero EROSKI center
eta EROSKI city
Supermerkatuetan eta
90€-tik gorakoa EROSKI
Hipermerkatuetan, Euskadin,
Nafarroan, Kantabrian,
Errioxan eta Aragoian.

27
urriak
larunbata

"Kazetaritza kultura berri bat proposatu du feminismoak"

JUNE FERNANDEZ PIKARA MAGAZINE ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

Espejoko gizarte etxean Laia Eskolak antolatutako mahai-inguru batean parte hartu du June Fernandezek (Bilbo, 1984). Hedabideen eta feminismoaren arteko harremanari buruz hitz egin du luze eta zabal Pikara Magazine aldizkari zuzendariak, eta ALEAren ere partekatu ditu hausnarketa sakonak.

Testua eta argazkiak: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**.

Mugimendu feministarentzat erreferentziazko hedabidea izateko asmoarekin sortu zen 2010ean Pikara aldizkari digitala. Urte hauetan emakumea bihurtu dute albisteen protagonista, kazetaritzaren hainbat formatu irauli dituzte eta pluraltasuna bihurtu da aldizkariaren ikur. June Fernandez Pikarako zuzendariak nabarmendu duenez, jendeak komunikabide feminista batean espero duenarekin apurtzea lortu dute, eta emakumeentzat deserosoak diren eztabaidak ere zabaldu dituzte. Batzuetan prezio altua ordaindu behar izan dute.

Zer eman dio feminismoak kazetaritzari?

Inertzia androzentrikoak identifikatzeko baliabideak; hedabide hegemonikoetan protagonista nagusia gizona dela konturatzea, eta ez edozein gizon baizik eta profil jakin bat: zuria, burgesa, heterosexuala... Feminismoari esker, kazetari bezala begirada zabaltzen dugu. Esate baterako, hedabide tradizioaletan badirudi politika dela alderdi politikoek egiten dutena, ekonomia da enpresa handiek egiten dutena, eta kirola dela gizonen futbola. Agenda hori feminismoak zalantzan jarri du. Pikaran hasi ginenean, kazetaritza feminista zer zen

hausnartzen hasi ginen, eta fokua beti gaietan jartzen genuen; denborarekin konturatu gara feminismoak ere ekarri behar duela barne prozesu bat, eta barne dinamikak aldatzea. Gu feministak gara ez soilik edozein gai ikuspegi feministarekin lantzen dugulako, baizik eta dena auzian jartzen dugulako: zer da albiste, nor da aditu. Feminismoak hori guztia zalantzan jartzen du, eta kazetaritza kultura berri bat proposatu du. **Zer ekarri dio kazetaritzak feminismoari?**

Feminismoak izan duen entzutean hedabideek paper bat jokatu dute. Hedabide alternatiboak betidanik egon dira mugimendu feministaren alboan, eta orain ia hedabide hegemoniko guztiek ikusi dute feminismoa interesgarria dela eta albiste garrantzitsuak sortzen dituela. Egon daiteke nolabaiteko sinbiosi bat, baina halere jende askok mesfidantzaz ikusten du El Paisek edo El Correok feminismoaren modara igo direla. Nik, berriz, uste dut mugimendu feministaren lorpen bat dela eskuineko egunkari *kasposoenek* ere onartzea agenda feministak interesa duela. **Interpelatuta sentitu dira, deseroso...?**

Bai. Horretan bitartekari garrantzitsuak izan dira sare sozialak. Orain arte, mugimendu feministaren eta hedabideen arteko harremana ez da eroso izan. Mugimendu feministak badu mesfidantza logiko bat, askotan hedabide hegemonikoak arrotzak direlako, baina sare

sozialen bidez jendeak erreakzionatzeko aukera izan du, eta titular matxista bat dagoenean twitter bidez salatzen duzu eta askotan hedabideek aldatzen dute. Sare sozialei esker, feministok hedabideen paperaren inguruko zaintza bat egin dezakegu; argi eta garbi ikusi da indarkeria matxistaren kasuan edo azken Olinpiadetan twitterren bidez agerian utzi da emakumeen nolako irudia zabaltzen duten medioek.

Kalitatezko kazetaritzak ezinbestez txertatu behar du genero ikuspegia?

Bai. Begirada partziala duzu androzentrismoa identifikatzen ez baduzu. Genero ikuspegia errealitatea ulertzeko eta azaltzeko ezinbesteko tresna bat da, klase ikuspegia edo arraza ikuspegia bezala. Kazetaritzak ezin dio bizkarra eman biztanleriaren erdiari, eta errealitateak ondo ulertzeko eta azaltzeko genero desberdintasunak kontuan hartu behar dira; prozesu sozial gehienetan generoaren desberdintasunaren faktorea kontuan hartu behar da.

Zer da garrantzitsuen begirada zabaltzeko?

Gakoa da eguneroko errutinak aldatzea, gelditu eta pentsatu, agenda begiratu, adibidez, eta zientzialari bat behar dudanean ikusi zenbat gizon eta zenbat emakume ditudan nire konfiantzazko iturrien artean. Estatu mailako datua da medioen agendan hamar aditunik soilik bat dela emakumezkoa. Hori oso kezagarria da. Feministak ez diren kazetari askok esan dezakete "nik generoa ez dut kontuan hartzen, nik erreferenteak diren pertsonak bilatzen ditut eta bost axola generoa", baina konturatzen bazara, inertzia bezala, agendako gehienak gizonak izango dira. Egia da, baita ere, Pikara aldizkari bat garela, eta erritmoa lasaiagoa denez agendari buelta emateko aukera dugula; hori egunkari batean zaila da, are gehiago zure albisteak baldin badira gobernuak egiten duenaren inguruan edo goi-ekonomiako albisteak, zaila da hor emakumeen begirada txertatzea.

Emakumeen presentzia ere urria da eztabaidetan.

Irratiaren eta telebistaren formatuen inguruan hausnarketa egin behar dugu, askotan oso patriarkalak direlako formatuak, eta emakume gehienak ez dira horietan eroso sentitzen. Tertulietan parte hartzeari, adibidez, nik beti ezetz esaten diot, giro oso arrotza delako, badirudi iskanbila bila ari direla. Behin proposatu zidaten abortuaren inguruan telebistara joatea eta tertulia bat izatea apaiz batekin..., ezetz esan nuen, arrotza zen, ez nintzen eroso sentituko. Orain



modan dagoen *opinologoen* hori ere oso patriarkala da. Egungo formatuak zalantzan jarri behar ditugu, eta pertsona bakoitzari galdetu behar zaio zein formatutan sentitzen den eroso.

Erreferente bihurtu da Pikara feminismoan. Asmo horrekin sortu zenuten?

Helburua nolabait mantendu da: mugimendu feministarako erreferentziatzeko hedabide bat izatea, pluraltasuna sustatuz. Feminismoan hamaika korrante daude eta guk hor egon nahi dugu, eztabaidagune bezala, eta halaber feminismoan murgilduta ez dagoen jendeari gure analisiak helarazi nahi dizkiogu.

Hutsune bat zegoen.

Bizkaian Andra izeneko aldizkaria edo Frida izeneko egon ziren, eta ez zen erreleborik egon;

eta Espainiako estatuan ere ez zegoen beste komunikabide feminista erakargaririk. Ikusten genuen bazegoela lekua halako hedabide batentzat. Sare sozialak sustatzen ari zirenean jaio zen Pikara eta hedabide gaztea, freskoa izan zen, baina ez genuen espero gaur egun ditugun egitura eta zabalpena. Gainera, Pikarara sartzen diren bisiten laurden bat Espainiako estatutik kanpo sartzen dira, batez ere Latinoamerikatik, eta ez genuen espero han erreferente izatea.

Medio digital bat aukeratu zenuten, 2010. urtean.

Zergatik digitala eta ez paperekoa?

Digitala merkeagoa eta malguagoa iruditzen zitzaigulako, ez duzu konpromiso bat hartu behar, zenbat orri bete... Facebook-ek pare bat urte zeraman, twitter ere hastapenetan zegoen, eta ikusten genuen digitala izateak jendearen partaidetza lagunduko zuela, eta dinamikoagoa izango zela. Paperera salto egin genuen 2016an, hasiera batean beldurrez eta auto-opari bat bezala, ilusioa egiten zigulako. Beldurra ematen zigun oso garestia eta konplexua iruditzen zitzaigulako, baina azkenean gertatu izan da paperezko edizioa gure ekonomia errazten duen produktu bat dela. *Crowdfunding*-aren eta salmenten bidez egiten dugu.

Non asmatu duzue?

Gako batzuk bagenituen argi hasieratik eta beste batzuk bidean topatu ditugu. Adibidez, ilustratzaileak proiektuan sartu direnean lortu dugu Pikarak irudi grafiko oso indartsua eta erakargarria izatea: Txanogorritxu katanarekin, esate baterako, ikono feminista bilakatu da. Bestetik, saiatu gara jendeak komunikabide feminista batean espero duenarekin apurtzea, espero ez duena aurkitzea, eta batzuetan emakumeentzat deserosoak izan daitezkeen eztabaidak zabaltzea. Saiatzen gara kazetaritza oso zabal bat egiten, eta gustatzen zaigu esatea ez garela aldizkari espezializatu bat baizik eta jeneralista, Pikarak denetarik lantzen duelako: ekonomia, politika, gizartea, nazioarteko gaiak, sexualitatea..., baina begirada feminista batekin. Feminismoa modan dagoen momentu batean zer eman dezakegu guk desberdin? Feminismo ez hegemonikoak dira erdigunean jartzen ditugunak.

Eztabaidak piztea gustatzen zaizue?

June bezala, kazetari bezala, nire obsesio bat da tabuak apurtzea. Kezkatzen nau edozein gunetan, giro ezkertiarretan ere, gaitasun kritikoa galtzea eta dogmatismoan erortzea;

Zazpi hitz

Autozentsura

Beldurra ematen didan hitz bat; ez nuke nire burua autozentsuratu nahi, baina batzuetan tentazio hori hor dago, polemikak saihesteko batik bat.

Feminazi

Egun feminismoak bizi duen une paradoxikoaren isla. Gero eta indartsuagoa dago eta zabalduagoa, baina estigmatizazioa hor dago.

Nikaragua

Nire bizitzako amodioetako bat. Orain tristezia eta inpotentzia sentitzen dut ezin dudalako ezer egin, kontatu baino.

Bilbo

Nire hiria. Pribilegioak. Pribilegio asko ditut hiri handi batean jaiotzeagatik eta ez landa eremuan, herri txiki batean, edo hegoaldeko herrialde batean.

Twitter

Alde batetik informazio iturria eta adierazpenak egiteko gune indartsu bat, eta bestetik indarkeria eta eraso asko dago, tamalez.

Manada

Feministak gara manada, feminismoa da elkartasuna, gu gara benetako manada.

Martxoak 8

Egunero da martxoak zortzi, baina egun horretan ikusgai dago.



"JENDEAK ASKOTAN EZ DU ULERTZEN ZER DEN KAZETARITZA ETA PRENTSA ASKATASUNA"

"FEMINISMO EZ HEGEMONIKOAK DIRA ERDIGUNEAN JARTZEN DITUGUNAK"

"SARE SOZIALAK GIDATZEA BEZALA DIRA, JENDEA OLDARTU EGITEN DA ETA POLARIZAZIOA ELIKATZEN DA"

horregatik niretzat garrantzitsua da diskurtso nagusi bat baldin badago beste diskurtso batzuk hor jartzea. Baina polemikak ere mingarriak dira, energia asko kentzen digute; egun, adibidez, prostituzioaren gaiarekin asko neurtzen dugu eta ez dugu edozein proposamen onartzen. Gainera, askotan gertatzen da gai baten inguruan iritzi hegemoniko bat dagoenean zuk beste diskurtso batzuk azaltzen baldin badituzu, jendeak pentsatzea beste horren alde jartzen zarela. Pikarak fama du prostituzioa erregularizatzearen alde dagoela, nahiz eta taldean iritziak askotarikoak izan; gure konpromisoa da sexu langileen aldarriak plazaratzea, abolizionisten diskurtsoak eta bi polo horietatik kanpo daudenenak ere.

Amarna Miller aktore pornoari eginiko elkarrizketak soka luzea ekarri zuen.

Oso txarto pasatu nuen. Hor ikusi genuen jendeak askotan ez duela ulertzen zer den kazetaritza eta prentsa askatasuna. Ez da bidezkoa hedabide baten kontra egitea eta sexu esplotazioa sustatzen dugula edo horrelako astakeriak esatea bere burua feminista bezala aurkezten duen emakume bati elkarrizketa bat egiteagatik. Bere ogibidea pornoan aritzea da, eta guretzat zilegi da galdetzea zer kontraesan dituen, zeintzuk diren bere estrategiak mundu hain patriarkal batean ibiltzeko... Horrek ez du esan nahi Amarna Millerren alde nagoenik edo Pikarak pornoa sustatzen duenik. Gure ekarpena kontzientzia kritikoa sustatzea izan behar da.

Kritika horiek ere kostu pertsonala dute.

Noski. *Matxitroll*-ek irainduko zaituztela gauza jakina da, baina zure ondoan dagoen jendearen kritikak edo erasoak mingarriagoak dira. Sare sozialak gidatzea bezala dira, jendea berehala oldartu egiten da, anonimotasuna erabiliz kritika oso bortitzak botatzen dira, eta polarizazioa elikatzen da. Ni ez naiz polemista sentitzen; badago jendea hori maite duena, polemikaren erdian egotea.

Zer proiektu berri ditu Pikarak?

Gero eta kezka handiagoa dugu irisgarritasunaren inguruan. Ezin dugu esan hedabide feminista bat garelara eta, aldi berean, emakume gorra, itsuak edo bestelakotasun funtzionalak dituzten emakumeak kanpoan utzi. Orain, esate baterako, irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsona asko dagoela kontuan hartuta, Pikarako edukien sailkapen bat egin dugu eta Irakurketa Erraza elkarteak moldatu egin ditu eskura jartzeko. Aldizkari digitalean eta paperean argitaratuko ditugu horiek. ■■■

Udazkena



IRATI MARAÑON
ITZULTZAILEA

Hitz egin nezakeen *Black is Beltzak* sortu didan zirraraz, haren erritmoaz, barruan mugitu dizkidan gauzez... Hitz egin nezakeen Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* ipuin-bildumaz. Izan ere, udan irakurri banuen ere, berriro ari naiz irakurtzen, Feminist Agenda Euskal Literaturan irakurle-taldean liburu horrekin abiatu dugu-eta ikasturte berria. Bai, lagunok, uda hastearekin bat Gasteizko Udalak irailera begira argitaratzen duen jardueren katalogo moduko horretan, kirolari lotutako hamaika ikastaroez gain, badira beste hainbat kontu: kultur jarduerak, eskulanak, zinemari buruzko hitzaldiak... eta horien artean literatur taldeak. Irakurtzea eta irakurritakoaz hitz egitea atsegin duen batentzat, ba, sekulako mauka.

Hitz egin nezakeen duela astebete Picos de Europara —edo nahi bada Europako mendietara— egindako txango batez. Inguru hartara joaten nintzen lehendabiziko aldia zen, baina zin dagit itzuliko naizela. Dena da harri, dena da aldapa malkartsu... Paraje ezin ederragoa da, bai horixe!

Kontua da, baina, lehengusua dela udazken honetako protagonista. Urtebete eman du kartzelan Alfredo Ramirez @erreharriak, eta azaroaren 3an askatuko dute; zigorraldia oso-osorik beteta, gainera, horixe da-eta Espainiako ingeniarietza juridikoaren errezeta. Elkertasuna, adierazpen askatasun eza, militantzia... Alfredoren zigorraldiko osagaiak kontu ezagunak dira, bai, askorentzat.

Horregatik zutabe honek harentzat behar zuen, badakit-eta Alea irakurtzen duela. Bide batez, eskerrik asko erredakzioko lagunei aldizkaria bidaltzen ibiltzematik, ziegako egonaldia apur bat gozatzeko balioko zuen-eta! ■■■

**LEHENGUSUA DA
UDAZKEN HONETAKO
PROTAGONISTA.
URTEBETE EMAN DU
KARTZELAN...**

Araba Euskaraz 2019

AROA ARRIZUBIETA, ARMENTIA IKASTOLAKO IKASLEA

Batzuek jakingo duzuenez, aurreko asteazkenean (urriak 10) Araba Euskarazko prentsaurrekoa izan zen, eta bertan aritu ginen Armentia ikastolako (aurtengo Araba Euskarazko ikastola arduraduneko) ikasleok. Bertan ipuin bat irakurri nuen, hain zuzen ere, Araba Euskaraz eta ikastola aipatzean sortzen zaizkidan hausnarketen inguruan hitz eginez. Horietako bat da, hain zuzen, dirudienez horrenbesteko polemika sortu duena.

Ipuinaren esaldiak zera dio: "Gorabidean gaude. Gorabidean egon nahi dugu beherantz gehiegitan joan garelako. 'Ikastola? Pf... Utzi hori eta egin eskola publikoaren alde apustu' esaten diguten bakoitzean adibidez". Hortik aurrerakoek ([...] edo ";pero para qué tengo que aprender euskera?" -ri erantzuteko balorea ateratzen dugun bakoitzean. Ba bai, ikastolan eta euskaraz. "Ikastolan gurea lantzen" dugulako, "euskara bizia ikastola hazia" delako [...]) ez daukate zerikusirik aurrekoarekin (ikastola publikoarekin) ipuinaren jarraipena besterik ez da, hasieratik egin bezala Araba Euskarazek orain artean izan dituen lema ezberdinak txertatuz. Badakit honek gaizki-ulertu edo interpretazio okerretarako tartea eman dezakeela, guztiz onartzen dut. Are gehiago, irakurtzean ohartu nintzen horrek sor zitzakeen interpretazio faltsuez, eta horren harira bota nituen Radio Vitoriako aitopen edo azalpenak

ere: "Nik nahi nuen apur bat niretik kontatu ipuina edo helduentzako ipuin hori, apur bat bai sentitzen dudalako batzuetan, remarkatzea gustatuko litzaidakeen zerbaite, daukagula 'ribalidatea' bezala eskola publikoarekin eta nik argi daukat eskola publikoaren guztiz aldekoa naizela; orduan, bai nahiko nuke denok elkartzea euskararen alde egiteko ideia horrekin".

"EZ DAITEZELA SOILIK 17 URTEKO IKASLE BATEK IDATZITAKO ESALDI BATEAN OINARRITU"

"NAHIKO NUKE DENOK ELKARTZEA EUSKARAREN ALDE EGITEKO IDEIA HORREKIN"

Lehen, eta ipuinean, aipaturiko esaldi horrekin adierazi nahi nuena zera da: Batzuetan ikastolako ikasleok sentitu ohi dugun bajoia "joe, zergatik zaude ikastolan?" esaten digutenean. Besterik gabe. Ez zen eskola publikoaren kontrako kritika bat, "kritikatzen gaituzten horien kontrakoa" baizik. Eta bai, berriro ere aitortu nahi nuke gaizki-ulertuak egon daitezkeela, eta agian ez naiz ondo azaldu, sentitzen dut, baina honekin argitu izana espero dut. Eta bai, nik ere baditut nire kontraesanak "eskola publikoaren alde banago, doako hezkuntzan sinisten badut... Zergatik nago ikastolan?" bezalakoak. Baina aldi berean baditut bertan egotearen aldeko arrazoiak ere. Baina beno, nik uste hori beste kontu pertsonalago bat dela.

Beno, hau esan izateko bi arrazoi nagusi dauzkat. Bata, ez dudala nire ipuineko "azalpen oker" batek beste batzuek ikastolekiko zuten iritzia okertzerik nahi. Ikastolen kontra dagoenak eduki ditzala bestelako arrazoi batzuk hau kritikatzeko (seguruenik edukiko dituenak), ez daitezela soilik 17 urteko ikasle batek idatzitako esaldi batean oinarritu. Bestea, eta honetara batez ere bultzatu nauena, pertsonalki nahiko minduta bizi dudan zerbaite izaten ari dela da. ALEAko iritzi-testu batean "baloreen heziketa eta ezberdinarekiko errespetua falta direla ematen du" esaten dutenean adibidez; badakidanean, testuan "gogora dezagun 16 urte baino gazteagoa dela bera" esaten duen arren, niri egiten didala erreferentzia zuzenean. Aurpegia ematea inoiz ez da erraza; are gutxiago hurrengo egunean juergan hiru pertsona datozkizunean esandakoa aurpegiratuz, eta hortik egunetik egunera beste hainbeste azalpen eske. Beraz, hor dituzue. Hortik aurrera guztiz sanoa deritzot eskola publikoa eta ikastolaren arteko beti egon den eztabaida horrekin jarraitzea, baina utz ezazue nire ipuina bertako argudioetatik kanpo, mesedez. Besterik gabe, hemendik aurrera prest nago nahi duenarekin geratu, kafe bat hartu eta ulertu ez dena azaltzeko. Mila esker honaino heltzeagatik eta barkatu okerrak.

BIDALI ZURE GUTUNA:
erredakzioa@alea.eus

Gutunarekin batera, bidali izen-abizenak, herria, telefona eta NAN zenbakia. ALEA-
eskubidea du gutuna laburtzeko eta
alea.eus-en argitaratzeko.

SAREAN

@ESTITXUUGARTE

#MTV

Berri Txarrak taldeak iragarri du Bilboko 'MTV Europe Music Awards' ekitaldiaren aurretik San Mamesen antolatu den kontzertuan joko duela, Muse eta Crystal Fightersekin batera. Albisteak eta taldearen erabakiak polemika handia piztu dute sare sozialetan; erabiltzaile ugari eta taldearen jarraitzaile asko atsekabetuta eta haserre agertu dira, beste batzuek nazioartean ezagunago egiteko aukera baliatzera animatu dute taldea, eta euskal musikaren aldeko urrats handi bat bezala ikusi dute. ■



ANEMIREN
@hegieder

Maila mundiala duen talde batek eskaparate mundiala behar du. Zorionak @berritxarrak



AXIER LOPEZ
@axierL

Kalean herri mugimenduek "@piztubilbo, Itzali MTV" aldarrikatu bitartean, Berri Txarrak MTVren jaialdian jotzen izango da. Benetan ala zerbaitek ihes egin dit?



UNAI ELIZASU
@unaielizasu

Ulertu ezinik nabil jendearen ezinegona. Berri Txarrak, eurak nahi dutena ta nahi dutenean egiteko eskubiderik ez balute bezela. MTVn jo aurretik, EHko herri, gaztetxe eta herri ekimen gehienetan jarduna da. Bejondeizuela.



KIMO
@KimoKalea

Zuek segi rock and rolla salbatzen, Zeuk ere sinetsiko duzu, rockanrollaren etorkizuna hau dela! Berri Txarrak very txarto. #AurpegiGalantaDuzue



KONTRALARI
@kontralari

Eztabaidatzen* d(u)en herria, ez da inoiz hilko. #berritxarrak #mtv
*Eztabaida ez da irain saioa.



Parral
taberna

menu begetarianoa eta gosariak
asteaz zehar - asteburuetan razioak
asteartero aktibazio kulturalak

PARRALTABERNA@GMAIL.COM

SAN FRANTZISKO XABIER KANTOIA 4

TLF 945276833

GASTEIZ-ARABAETI

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

Urriak 27, larunbata

Gasteizko Probaldia

Salburuko Gizarte Etxean

- **17:00 "Egur Taupadak"
Umeentzako Antzerkia**

(Sarrerak aurretik Gizarte Etxean salgai)

- **18:00 Ginkana/Zumba
aukeratu zurea!**

- **19:00 Mintzodromoa**

- **20:00 Jon Basaguren
kontzertua**

*Arratsalde osoan Ahobizi edo
Belarriprest izango gara

**Txosna ere egongo da



Galdeketari ezetz esan dio Udalak

EAJ eta PSE alderdien botoekin atzera bota dute Berriztu eta Fracking EZ plataformek Gasteizko udalbatzarrean aurkeztutako proposamena: Armentia-2 putzuari buruzko herri galdeketa eskatzen zuten.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Joan den astelehenean Gasteizen izandako udalbatzarrean parte hartu dute Berriztu Araba y Fracking Ez! elkarteek, eta bertan eskatu dute Subilla Gasteizen zulatu asmo duten Armentia-2 gas putzuari buruzko herri galdeketa egitea hirian. EAJ eta PSE alderdiak aukera horren aurka agertu dira, eta PPK abstentziora jo du. EH Bildu, Ahal Dugu eta Irabazi, berriz, galdeketaren alde agertu dira. Ondorioz, proposamena atzera bota du Udalak. Momentuz ez da egongo, beraz, gaiari buruzko galdeketarik Gasteizen.

Kontra azaldu diren bi alderdien "jarrera antidemokratikoa" salatu du Berriztuk, ohar baten bitartez. "Ahoa betetzen zaie *Green Capital*arekin batzuei; 'trantsizio energetikoko ministerioarekin' besteei, eta hiritarren parte-harztearekin bie'i"; halere, bi alderdiek

GALDEKETAREN AURKA AGERTU DIREN ALDERDIEN "JARRERA ANTIDEMOKRATIKOA" SALATU DU BERRIZTUK

"erregai fosilen aldeko apustua" egiten dutela diote ekologistek. Gogorarazi dute fracking-ari buruzko 2014ko Herri Ekimen Legegilean bildutako 103.589 sinaduratatik 40.000 bat Gasteizko herritarrenak zirela.

Oposizioaren kritikak

EH Bilduko Aitor Miguel zinegotziaren aburuz, astelehenean eztabaidatutako gai "estrategikoa" da hiriarentzat, eta, horregatik, galdeketa egin beharra zegoela aldarrikatu du. "Liburuetan agertzeko moduko adibidea" dela esan du. Ahal Dugu-ko Jorge Hinojalaren esanetan, "konpainia elektrikoek sustatzen dute erregai fosilen agertokia, haien negozioa hobetu aldera, eta argi dago EAJrekin inoiz ez garela ados jarriko gas putzu bat beharrezkoa ote den erabakitzeke". Irabaziko Oskar Fernandez Martinek, berriz, putzua "berehala bertan behera uzteko" galdegin du, "erregai fosilen usiaketa iraganeko kontua" delakoan. Herritarrek "eredu energetiko berria" eskatzen dutela dio.



Armentia-2 putzuari buruzko herri galdeketa eskatu dute, baina Udalak ezezkoa eman dio, EAJ eta PSE botoekin. ALEA



Asteazkenean aurkeztu dituzte Gasteizen 2018ko Barometroari buruzko datuak. ALEA

Etorkinak ez dira arazo Araban

Immigrazioari buruz egin den azken Barometroaren arabera, arabar gehienek ez dituzte etorkinak arazotzat hartzen: soilik hamarretik batek aipatu du gaia hiru "arazorik" handienei buruz galdetu zaienean.

JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Estatutik kanpoko immigrazioaren inguruan arabarrek dituzten pertzepzio eta jarrerren inguruko 2018ko Barometroaren emaitzen aurkezpena egin dute asteon.

Atera duten ondorio nagusia da, oro har, arabarrek ez dituztela arazotzat hartzen etorkinak. Hala, egun dauden hiru arazorik handienak zeintzuk diren galdetuta, gehienek arlo ekonomikora jo dute. Arabako datuei erreparatuta, erdiak uste du langabezia

dela arazorik larriena, era jarraian doaz pentsioak (%19,3) eta "arazo ekonomikoak" (%17,5). Hamarretik batek uste du immigrazioa dagoela hiru arazo handien artean, eta %4,1ek aipatzen du gaia lehen postuan. Hiriburuari dagozkion datuak antzekoak dira.

Lana gidatu duen Immigrazioaren Euskal Ikuspegiaren zuzendari Jose Antonio Oleagak aurkeztu ditu datuak. Haren esanetan, immigrazioaren pertzepzioa oso lotuta dago etorkizunari buruz

eta egoera ekonomikoari buruz dagoen pertzepzioari. Etorkinek eduki behar dituzten eskubideei dagokienean, gehienek uste dute etorkinek hezkuntza publikoa (%86,4) eta osasun zerbitzua (%77,3) ziurtatuta izan behar dituztela, haien egoera administrazioa edozein dela ere.

Seiko nota, batez bestean

Beste hainbat zerbitzuri dagokienean, berriz, jarrera itxiagoak ageri dira. Adibidez, paperik gabeko etorkinek arreta juridikoa izateari (%38,8 alde agertu dira), edo diru-sarrerak bermatzeko errenta edukitzeari (%36,6) dagokienean.

Datu guztiak bilduta, tolerantzia-indizea osatu dute. Zerotik hamarrera, seiko nota da batez bestekoa. "Ez da nota txarra, baina hobetzeko aukera geratzen zaigu oraindik", esan du Oleagak. Oro-tara 1200 inkesta egin dituzte: 600 Gasteizen, eta beste 600 gainera-ko kuadrilletan.

ESANAK



MAITE ZABALA
HARRERA FAMILIETAKO ARDURADUNA

"Harrera familia gehiago behar dugu Araban haurrak laguntzeko"



TXERRA BOLINAGA
RIP TALDEKO KIDEA

"RIP ez zen bakarrik taldea, baizik eta jarrera, egiteko moduak, lagunak..."



JAVIER RUIZ DE GALARRETA
ARAEX ARDOGINTZA TALDEKO BURUA

"Premium esparruetan ondo lehiatzen ez bagara, etorkizuna kezgarria da"

ZENBAKITAN

Lekuak

Istripu gehien gertatzen diren Gasteizko zazpi lekuetan segurtasuna hobetuko du Udalak datozen bost urteotan. Askotariko neurriak aurreikusi dituzte honako tokietan: Latinoamerika plaza, Arriagako atearen eta Artapadura kalearen arteko biribilgunea, Gasteiz Etorbidearen eta Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalearen arteko bidegurutzeta, Arriagako atearen eta Zadorra hiribidearen arteko biribilgunea, Antonio Machado eta Iruñea kaleen arteko bidegurutzeta, Antonio Machado kaleko 17, eta Florida eta Jacinto Benavente kaleen arteko biribilgunea. Leku horietan 89 istripu jazo ziren iaz.

7

600

Euroak

Montessori eskolak 600 euroko isuna jaso du, Gasteizko Udaleko ikuskatzaileen lana oztopatzeagatik. Lizentziarik gabe aritzea leporatuta, hilaren 15ean Salburuko zentrora bertaratu ziren udal langileak, baina lokalaren arduradunak bertan sartzea debekatu zien, bertan adin gutxikoak zeudela argudiatuta. Handik lau egunera zentroa prezintatu zuten. Udalak ez daki zeintzuk diren bertan ikasten zuten haurrak.

8

Udalerriak

LED bonbillak jartzeko 106.000 euroko laguntza jasoko dute Pipaon, Villabazana, Montoria, Pobes, Larrazkueta, Villaverde, Kexaa eta Hereñako administrazio batzarrek. Gastuaren %90 da hori, Diputazioaren arabera. Modu horretan, kanpoko argiteria hobetu, gastua gutxitu eta karbono dioxido isurketak gutxitu nahi dituzte. LED teknologia "eraginkorragoa" dela eta "energia kontsumo txikiagoa" eragiten duela argudiatu dute.

Gasteizko mural berriaren kokalekua kritikatu dute

Irantzu Lekue artistaren mural bat Gasteizko Etorbideko 81. zenbakian jartzeko aukera arbuia du Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko kide Ekain Jimenez Valenciak. "Eskandalagarritzat" jo du bertan murala ipintzea. "Duela gutxi eraikita dagoen eta kalitatezkoa den arkitektura baten gainean" egingo dela salatu du arkitektoak, twitter bitartez.



Gasteizko Etorbidearen 81. atariaren horman egin nahi dute murala. ALPHABET



Herraek zuzenduko du museoa. ARTIUM

Beatriz Herraek izango da Artiumeko zuzendari berria

Beatriz Herraek hartuko du Daniel Castillejok Artium museoan utzitako tokia. Horrela erabaki du, aho batez, museoaren balioespen batzordeak, hilabete batzuetako prozesu batean, gutzira, hamabi proiektu aztertu ostean. Herraek gasteiztarrak Artearen Historiako eta Arte Ederretako prestakuntza jaso zuen Euskal Herriko Unibertsitatean.

Correosen murrizketa berriak egongo direla salatu du LABek

Lautadan eta Arabako Errioxan Correos enpresako zerbitzua are gehiago murriztuko dela salatu du LAB sindikatuak, banaketa lanpostuen %30 desagertu baita-lau langile-. Banatu behar diren eremuak, berriz, handitu egin ditu Correosek, eta kasu batzuetan ehun kilometrotik gora eta dozenaka herri hartzen dituzten zonaldeak ezarri ditu.

Maite Maiora eta Javi Dominguez izan dira garaile Hiru Handietan

Maite Maiorak irabazi zuen Hiru Handiak mendiko lasterketa; bigarren eta hirugarren postuan sartu ziren, hurrenez hurren, Oihana Azkorbebeitia eta Mayi Mujika. Gizonezkoetan, Javi Dominguez arabarrak 11 ordu eta 14 minutu behar izan zituen ibilbidea egiteko. Haren atzetik Julen Martinez de Estibariz sartu zen, eta hirugarren, Jokin Garai.



Emakumezkoen artean, marka hobereana egin du Maite Maiorak. IBON GORRISI

"Kanpora joaten gara turismoa egitera, etxekoa ezagutu barik"

LIBE RAMILA AMILLENAREN KOORDINATZAILEA

MIRIAN BITERI

Epe luzera begirako proiektua berreskuratu dute Aramaion: Amillena elkarteak eta Udalak elkarlanean, udalerrira sakonago ezagutzeko bisita sorta zabala prestatu dute udazkeneko eta udaberriko hileko hirugarren igande goizetan. Ondarearekin batera, historia eta naturarekin lotutako irteerak dira.

Zein da Amillenaren asmoa?

Amillena haize mota bat da, berez, eguraldi aldaketa dakarrena; Gantzaga inguruan Anboto aldetik sartzen da, eta Uribarrin, Legutiotik. Bertako hitz bat berreskuratzeko asmotan aukeratu genuen Amillena orain dela bost bat urte. Hitza beraren esanahiak lagundu zuen aukeraketa horretan, herrian bizitzeko modua aldatzeko helburuarekin. Kontua da konturatu ginela, Aramaion bizi bagara ere, askotan ez dugula herria ezagutzen; kanpora joaten gara turismoa egitera, eta etxekoa ez dugu ezagutzen. Eta, aldi berean, konturatu ginen ezagutzen ez duguna errespetatzera ere ez garela



Libe Ramila. M.B.

iristen. Hortaz, herritarrei bereziki Aramaio ezagutaraztea izan zen elkartearen sortzearen helburua, baina baita kanpotarrei ere.

Gutxi iraun zuen, baina, lanean?

Hala da, bai. Garai hartan, hiru lagun ginen: Jone Arriolabengoa, Ainara Inuntziaga eta ni neu. Hirurak langabezian geunden. Baina, jarraian topatu zuen lana bata zein besteak, eta *stand by* moduan geratu zen proiektua. Aurten berreskuratu dugu, eta, Udalarekin batera, Aramaio Ezagutu bisita gidatu sorta antolatu dugu, herria

ezagutzeko helburu hori betetzen hasteko. Aldi berean, kanpora begira ere bagabiltza gure eskaintza zabaltzen, euskaltegi, ikastetxe eta abarrei. **Domekan egin zenuten lehen bisita.** Bai, Ibarra ezagutu genuen ordubetea. Oinarrizko jakintzen berri eman genuen: lehenik eta behin, Bañera parkea bisitatu genuen. Aramaioak bainuetxe bat izan zuen bertan; horren historia azaldu eta askotan identifikatzen ez dakizkigun aztarnak ikusi genituen. Handik, elizara joan ginen; arreta deitzen du neoklasikoa delako eta tenplu bat ematen duelako. Jarraian, plazara jaitsi eta udaletxea, Sastiña ermita edota Bixente Goikoetxea musikariaren etxea bisitatu genituen. Baserri Barri egitasmok kudeatzen duen Ekonomatua ere ezagutu genuen. Lehen aipatutakoa, lehenengo gurea ezagutu, gero kanpoan indarra egiteko. Bisita oinarrizkoena izan zen domekakoa.

Noizko bigarrena?

Azarorako. Asmoa da, udazkenean eta udaberrian, hileko hirugarren domeka



Pasa den dokeman egindako bisitan 22 lagunek parte hartu zuten. AMILLEN ELKARTEA

goizetan izatea bisitak; euskaraz eta doakoak izango dira guztiak. Modu horretan, udalerrian bertan edo Gasteizen bizi denak badaki egun horietan Aramaion zerbait dagoela. Ondarearekin batera, historia eta natura ere landuko dugu. Euskal Herrian mendiak duen garrantzia kontuan izanda, natura txangoak ere prestatu ditugu. Aramaion badago Errez izeneko ingurumen aholkularitza, eta horren eskutik ohiko ibilaldietatik ihes egin eta inguratzen gaituzten baso eta errekak beste modu batean ezagutuko ditugu azaroko txangoan. Helduei zuzenduta egongo da hori.

Bisitak, orduan, berezitatea daude?

Bai. Batzuk familientzako izango dira: martxoan, bisita mitologikoa egingo dugu, eta maiatzerako "Betaurreko berdeak" izeneko ere aurreikusita dago: hain justu,

kontsumo ohituretan eta elikadura-subiratunotasunean oinarrituta egongo dena. Gazteek ere bere tokia izango dute, askotan ahazten zaigun sektore bat delako. Apirilean egingo dugu beraiekin natura interpretatzeko irteera bat.

Eta auzoetara, noiz?

Ekainean. Udalak bi mendi ibilbide zirkular berreskuratu ditu: Tellerixa bidea; eta bestetik, Azkoaga ingurutik doana. Horietako bat egingo dugu ekainean; Erdi Aroan oinarrituta egongo den bi orduko txangoa izango da.

Eskolari ere eskainiko dizkiozue hainbat bisita, ezta?

Hala da. Bisita sortan agertzen ez bada ere, hiru bisita eskainiko dizkiogu: natura interpretazioarena, betaurreko berdearena eta bisita mitologikoarena. Gainera, Udalak eguneko zentroan daudenekin ere egitea proposatu du. Bertako batzuen

egoera dela eta, espezifikoak izango da: bisitaren zati bat proiektio baten bidez egingo dugu, eta bestea kalera irtenda; mugikortasun arazoak dituztenek ere parte hartu ahal izango dute modu horretan. Herritar guztiengana heltzen saiatu gara.

Bisita sorta honen atzetik lan asko egongo da?

Bagabiltza horretan ere. Dokumentazio lana eskatzen du, bai. Elkarrizketa egiten ibili gara eta jarraituko dugu egiten, Herri Curriculumak eskaintzen dituen sinergiak aprobetxatuz. Bestetik, Aramaioko artxibora oraindik ez gara heldu, eta Gasteizko museo arkeologikora ere badugu joateko asmoa. Herrikoarekin hasi gara eta apurka joango gara. Helburua da proiektua garatzea eta egonkortzea, epe luzerako proiektua aurrera ateratzea; baina, baliabideek baldintzatuko dute. ■■■

Estreinaldiekin dator Bernaola

Monica Valencianoren dantza emanaldiak eta musikagile ospetsuen kontzertuak izango dira larunbatetik abenduaren 3ra bitartean XV. 'Bernaola Festival'ean, arte abangoardistaren topagunean.

E. UGARTE LZ. DE ARKAUTE GASTEIZ

Sorkuntza berriko musika biltzen duen Bernaola Festivalaren XV. edizioa izango da urriaren 27tik abenduaren 3ra bitartean, Gasteizen eta Araian. Hainbat estreinaldiren topagunea bilakatuko da Araba edizio berri honetan, musikagile ospetsuen esku; Alexandra Greffin-Klein, Alexis Deschames edo Jeff Kaiser izango dira azkeneko lanak aurkeztuko dituztenak.

Halaber, Sinkro Records diskoetxeak bere azken CDak aurkeztuko ditu, *El Gran*

Chiflado, Sirius taldearena (Guillermo Lauzirika eta Ignacio Monterrubio), Luis Tabuenca eta John Edwardekin elkarlanean egina, eta Zuriñe F. Gerenabarrena konpositorearena.

Dantzaren atalean, Monica Valencianoren ikuskizuna gozatzeko aukera izango da, bi egunetan. Valenciano dantza garaikidean ospetsua da, eta ibilbide artistiko luzea egin du. 2012. urtean, Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioak Dantzako Sari Nazionala eman zion, sormen lanaren modalitatean.

Bernaola Festivala sorkuntza berriko musikan oinarrituriko jaialdia da; teknologia berriekin eta bestelako arte-diziplinekin, dantzarekin, bideogintzarekin edo margogintzarekin uztartutako musikaren erakusleihu garrantzitsua bilakatu da 1994. urtean sortu zenetik. Hala, abangoardiako musikaren erreferentea da eta ospe handiko konpositoreak eta artistak erakartzen ditu. Adierazpen modu berrien miaketa eta teknika instrumentalen integrazioa dira musika jaialdiaren ezaugarri nagusiak. ■■■

Egitaraua

Kulturaren erreferente diren hiru gunetan banatuko dira festivalaren kontzertuak Gasteizen; Araiaiko German Mari Landazabal musika elkartearen babesari esker, herriko San Pedro elizan ere izango da kontzertu bat.

Jesus Guridi Musika kontserbatorioan

- **Akusma:** Urriaren 27an, 19:30ean.
- **Espai Sonor:** Azaroaren 1ean, 19:30ean.
- **Sirius & Friends:** Azaroaren 8an, 20:30ean.

- **Drumming:** Azaroaren 10ean, 19:30ean.
- **Jeff Kaiser:** Azaroaren 22an, 18:15ean, Jeff Kaiserek hitzaldi irekia emango du bere sormen prozesuaren inguruan. Kontzertua 20:30ean hasiko da.
- **25 Ensemble Sinkro:** Azaroaren 24an, 19:30ean.
- **Alexandra Greffin-Klein:** Azaroaren 29an, 20:30ean.
- **Alexandra Greffin-Klein eta Alexis Deschames:** Abenduaren 1ean, 19:30ean.
- **Guridi garaikidea:** Abenduaren 3an, 19:30ean.

Arte Ederren Museoa

- **B.Chavarria-Aldrete:** Azaroaren 3an, 12:30ean.

Artiumen

- **Dzast Ahotsak:** Azaroaren 15ean, 20:30ean.
- **Anna Margules:** Azaroaren 16an, 19:30ean.
- **Monica Valenciano:** Azaroaren 17an, 19:30ean.
- **Monica Valenciano:** Azaroaren 18an, 19:30ean.

San Pedro elizan (Araia)

- **Dzast Ahotsak:** Azaroaren 18an, 13:30ean.



Koloreak hartu du Artium

Menchu Lamasen *Kolore nomadak* erakusketa egongo da ikusgai urtarrilaren 20ra arte, Gasteizko Artium museoko Iparra aretoan. Margolariaren egungo etapako artelan esanguratsuenak ikusi daitezke, unibertso sinboliko bizia, baliabide abstraktuak eta figuratiboak modu pertsonalean batzen dituenak. ■■■

Batera

kultur proiektuak elkarrekin

Info ••: www.itsulapikoa.eus/deialdiak/batera

Gaztea eta gasteiztarra?
 Zein kultur proiektu garatuko zenake laguntza poka bat izanez gero? Liburu bat argitaratu? Diska bat atera? Graffiti taller bat antolatu? Jaialdi bat prestatu? Argazki erakusketa bat sortu?...

Euskaraz egin nahi baduzu, orain da zure aukera!
 Crowdfunding ekimen bat marxan jartzen lagunduko dizugu, eta 1000€ko ekarpena egingo diogu zure proiektuari.

Proiektuak aurkezteko epea
 Urriaren 16tik abenduaren 16ra

Zaila da bakarrik egindako lana, egin dezagun elkarrekin!
 Proiektu Kulturaltak • Gasteiz • Euskara • Gazteak • Crowdfunding • 1000€

ANTOLATZAILAK

LAGUNTZAILAK

HEBERRI LAGUNTZAILAK

Irain birtualen aurka

TEKNOLOGIA



ARRATE SANCHEZ

OREKA IT

Izenpetu gabeko profil baten atzean, izaera askotariko gizabanakoak daude. Gehienak adeitsuak izatea nahi genuke, baina neurri handi batean ez da horrela. Bai sare sozialek zein beste plataforma digital askok ematen duten pribatutasunari esker, errespetu gabeko iritziak eta irainak hedatu ohi dira, jakinda ia ezinezkoa dela idazten edo publikatzen duen profilaren identifikazioa.

Eskoletan eta lanpostuetan ematen diren jazarpen egoerak konpontzeko gai ez garena dirudi, eta orain, mundu digitalean ematen diren errespetu faltak gaineratu behar ditugu. Hasiera batean heziketaren bitartez hobetu nahi izan bada ere, onartu behar dugu ez direla praktika negargarri hauek desagertu, horregatik, plataforma batzuk hasi dira teknologian oinarritutako konponbideak garatzen. Antza denez, *machine learning* bitartez posible izango da beste pertsona bat mindu nahi duten argazki eta iruzkinak ezabatzea inoren salaketarik egon gabe.



PIXABAY

Sare sozialek araudietan jasoko dira erabiltzaileen arteko errespetu faltak, eta betetzen ez duten edukiak automatikoki blokeatuko dira minduta suertatzen den profilaren kezarik ematen ez

**SARE SOZIALEK
HARTZEN ZUTEN
JARRERA PASIBOAREN
AMAIERA DATORRELA
DIRUDI**

bada ere. Beraz, parte-hartze aktiboa hartuko dute enpresa hauek, profil anonimoen atzean ezkatzen diren pertsonak erabileragokia egingo ez dutelakoan.

Penagarria da neurri hauek hartu behar izatea, baina sare sozialetan izena emateko prozesuan identifikazio pertsonalerako datuak eskatzen ez diren bitartean, horrelako praktika tamalgarriek jarraituko dute. Ez da egoera hau konponduko, plataforma batean iritzi mingarriak galarazten diren bitartean, beste arau eskaseko foroetan helaraziko dira eta. Baina ez gara ezkorrak izan behar. Sare sozialek hartzen zuten jarrera pasiboaren amaiera datorrela dirudi, eta komunitatearen artean ematen den errespetu faltaren aurkako borrokan parte hartuko dute. Azken finean, beraiek sortutako mundu birtualeko arazoa da, eta inork baino hobeto galarazi dezakete erabiltzaileen arteko irainak. Argi dago komunitatearen laguntza edota fede ona eskatzea ez dela nahikoa. ■

 **oreka i.t.**
corporate balance
INFORMATIKA ZERBITZUAK ETA SAP NEGOZIO-SOLUZIOAK
EZAGUTU GURE WEBGUNE BERRIA
www.orekait.com

Hitz egin dezagun!
945 067 219
orekait@orekait.com

KU_BERNAOLA FESTIVAL 2018



URRIA

27 AKUSMA (Jesús Guridi Musika Kontserbatorioa, 19:30)

AZAROA

1 ESPAI SONOR (Jesús Guridi MK, 19:30)

3 BERTRAND CHAVARRÍA-ALDRETE (Arte Ederren Museoa, 12:30)

8 SIRIUS & FRIENDS (Jesús Guridi MK, 20:30)

10 DRUMMING (Jesús Guridi MK, 19:30)

15 DZAST AHOTSAK (Jesús Guridi MK, 20:30)

16 ANNA MARGULES (Artium, Ekioldeko Goi Aretoa, 19:30)

17 MÓNICA VALENCIANO (Artium, EGA, 19:30)

18 DZAST AHOTSAK (Araia, San Pedro Elizo, 13:30)

18 MÓNICA VALENCIANO & CO (Artium, EGA, 19:30)

22 JEFF KAISER (Jesús Guridi MK, 20:30)

24 ENSEMBLE SINKRO (Jesús Guridi MK, 19:30)

29 ALEXANDRA GREFFIN-KLEIN (Jesús Guridi MK, 20:30)

ABENDUA

1 ALEXANDRA GREFFIN-KLEIN & ALEXIS DESCHARMES (Jesús Guridi MK, 19:30)

3 GURIDI GARAIKIDEA (Jesús Guridi MK, 19:30)

www.bernaolafestival.com



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Hegoaldeko atariaren herria

GURE BAZTERRAK



Urizaharra

Kuadrilla: Mendialdea.

Udalerrria: Urizaharra.

Biztanleak: 121 (2017ko INEren datuen arabera).

Bitxikeria: Bi aztarnategi ditu: Yurdinaskoa, bata; eta anbar aztarnategia, bestetik. Munduko garrantzitsuenetako bat da azken hau.

ARGAZKIA: NATOURING

TESTUA: MIRIAN BITERI

Urizarra izeneko herri hustuaren jatorrizko kokalekua hartzen du Toloño mendizerraren ertzean dagoen Urizaharrak. Mendeetan, gatazka asko jasandako herria da, guztiak nahi zutelako konkistatu, bai Nafarroako erregeek eta baita Gaztelako erregeek ere; eta hori dela eta, bi erreinu horien esku egon zen denbora luzez.

Historialari batzuen arabera, baina, lehenago hasi zen bertako historia; zehazki, VIII. mendean. 1200. urtean, Gaztelako Alfonso erregeak Foruak eman zizkion, eta XIII. mendean ere herria babesteko harresiak altxatu zituzten; Peñacerrada-Urizaharra izena jarri zioten orduan.

1377ko azaroaren 15ean, Gaztelako Enrique IIak bere gozogle nagusi eta Gesaltzako lehen konde Diego Gomez Sarmientosi eman zion, eta, ondoren Hajar Dukeen heredatzaileen esku geratu zen.

Lehen gerra karlistan, bataila ugari egon ziren eta Erdi Aroko hiribildua nahiko hondatuta gertatu bazen ere, oraindik ere aberatsa da bertako ondarea; 1996an erregratu zen Kultura Ondare moduan, Monumentu Multzoaren kategorian.

Egun, bi dira hirigune historikoa inguratzen dituzten elementu

aipagarrienak: harresia bera eta hegoaldeko ataria, alboetan bi dorre handi dituena; antzinako harresitik ondoen kontserbatzen den harresi zaharra da.

Horrez gain, nabarmentzekoak dira plazan dauden XVI. mendeko udaletxe zaharra, apaizetxea eta Hajarreko dukearen etxea; XVII. mende amaierakoa. Etorkizunean Anbarraren Interpretazio Zentroa eraikitzeko asmoa dago eraikin horretan. Aipamen berezia behar du, aldi berean, Jasokundeko Andre Mariaren elizak: estilo erromaniko tenplu honek XVI. mendean eraikitako dorre barrokoa du, eta baita erromanikotik gotikorako trantsizio estiloko ataria ere.

Errota ere badu Urizaharrak, 1778. urtean eraikitakoa, eta orain dela gutxi barrutik eraldatu dutena landetxe bihurtzeko. Beheko solairuan du errota eraikinak eta baita artisau okindegia ere. Etxe aurretik bertatik pasatzen den ur iturburu batek mugitzen du errota.



Irakurleen txokoa

ZOZKETAK

Irabazleak:

Florida zinemarako 3 sarrera bikoitz: Eñaut Iraeta, Eneko Etxegarai eta Aitzol eta Adur Lamo Saratxo.

'Moby Dick' antzezlana ikusteko sarrera bikoitza: Gustavo Ceballos Najera.



Antzerkirako sarrera bikoitza
Principalen, 'Ahora todo es noche'
antzezlana ikusteko.

Eman izena urriaren 31 baino lehen.



PARTE HARTU: www.alea.eus/zozketak

Parralen bazkaria
Bi lagunentzako bazkari begetarianoa,
asteazkenean zehar.

Eman izena azaroaren 7a baino lehen.



Zozketa berezia

5 ALEA harpidetza

Oraindik ez zara ALEA kidea? Laboral Kutxaren babesari esker, ALEAren harpidetza doan lortu dezakezu. **Eman izena urriaren 30a baino lehen:**

www.alea.eus/zozketak



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:

945 71 60 09

On-line:

alea.eus/harpidetzak

E-mailez:

harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Urriaren 26tik azaroaren 1era

Euskararen agenda

MUSIKA

LEGUTIO Jainaga eta Narbaiza

Euskal ezkontzaren barruan. Kalejira eta dantzaldia izango dira.

Larunbata 27, 22:00etan, frontoian.

GASTEIZ Oso Fan

Giorgio Basmatti eta Oriol Floresen proiektua.

Astearte 30, 20:30ean, Parralen.

HAURRAK

LAUDIO 'Izenak izana'

Ipuin saioa, Eneko Haritzaren eskutik.

Ostirala 26, 18:00etan, Aretako liburutegian.

AMURRIO 'Luis eta extralurtarrak'

Adin guztientzako filma.

Igandea 28, 17:30ean, Amurrio antzokian.

GASTEIZ 'Printzesak, munstroak eta sorginen bat'

Rakel Imazen eskutik. 6-8 urte bitartean.

Astearte 30, 18:00etan, Judimendi gizarte etxean.

BERTSOLARITZA

BASTIDA Arabako Bertsolari Txapelketa

Hirugarren kanporaketa. Xabier Antia, Iñaki Cabeza, Rikardo Gonzalez de Durana, Xabi Igoa, Unai Mendibil eta Jon Ruiz de Pinedorekin.

Ostirala 26, 20:00etan, kultur etxean.



111 AKADEMIA

AMURRIO 'Askatasun haizea' jaialdia

Arantza EzioIaza, Ainhize Solaun, Oier Guillan eta beste hainbat artistarekin.

Ostirala 26, 20:00etan, Amurrio antzokian.

AGURAIN Arabako Bertsolari Txapelketa

Laugarren kanporaketa. Peru Abarrategi, Jagoba Apaolaza, Oier Arbina, Ainhoa Comas, Aitor Najera eta Iñaki Viñasprekin.

Larunbata 27, 17:30ean, Zabalarte etxean.

MURGIA Arabako Bertsolari Txapelketa

Bosgarren kanporaketa. Martin Abarrategi, Aroa Arrizubieta, Beñat Garaio, Serapio Lopez, Xabier Rico eta Felipe Zelaietarekin.

Igandea 28, 17:30ean, udaletxean.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Namibian basamortua biziz'

Ainhoa Perez de NancIares eta Koldo Zubizarreta bidaiaren eskutik. Gasteiztarrak Arraun The World

argazki-hizki lehiaketako irabazleen hitzaldia.

Astearte 30, 19:00etan, Txagorritxu auzoko Orient Express tabernan.

GASTEIZ 'Heriotzaren etorrera'

Felix Mugurutzarekin. Heriotzaren inguruko istorio eta bitxikeriak.

Astearte 30, 19:00etan, Hegoalde gizarte etxeko liburutegian.

BESTELAKOAK

GASTEIZ Santa Isabel hilerria

Gasteizko kanposantua ezagutzeko bisitaldi gidatua, euskaraz. Aurretik izena eman behar da turismo bulegoan.

Igandea 28, 10:30ean.

AGURAIN Itziar Rekalde

Helduentzako ipuinak.

Ostirala 26, 19:00etan, Euskaraldiaren lokalean.



EUSKARALDIA

GASTEIZ 'Gasteizko Probaldia', Euskaraldiaren eskutik

Umeentzako antzerkia, mintzodromoa eta Jon Basagurenen kontzertua.
Larunbata 27, 17:00etatik aurrera, Salburuko gizarte etxean.

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ Carvin Jones

Ostirala 26, 20:00etan, Le Coup aretoan.

GASTEIZ Stormzone

Ostirala 26, 21:30ean, Urban Rock Concept aretoan.

GASTEIZ Melodías del silencio

Ixileku elkartearen eskutik.
Larunbata 27, 17:30ean, Ataria gunean.

GASTEIZ Parabellum

Piztu Punk taldearekin batera
Larunbata 27, 20:30ean, Jimmy Jazz aretoan.

GASTEIZ Radio Birdman

Asteartea 30, 20:30ean, H. Doradon.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Link Link Circus'

Isabella Rosellinirekin. Animalien munduari buruzko bakarriketa bat taularatuko du.
Ostirala 26, 20:30ean, Principalen.

GASTEIZ 'Bosch Dreams'

Les 7 Doigts de la Main konpainiaren eskutik, zirko garaikideko ikuskizuna aurkeztuko dute dantza, akrobazioak eta antzerkia uztartuta.

Asteazkena 31, 20:30ean, Principal antzokian.

BESTELAKOAK

MAEZTU Mendialdeako Jardunaldi Feministak

Mugimendu tailerra Blanka Ruizekin, ekofeminismo tailerra Ainhoa Maillorekin, kanpo-barne konexioa Uxue Lopez de Luzuriagarekin, eta mahai-ingurua German Urteaga eta Ainara Ruizekin.
Larunbata 27, 11:00etatik aurrera, kultur etxean.

ZALDUONDO Lautada Eguna

Landa ingurunetako inauterien erakusketa, nekazal azoka, abesbatza topaketa, zaporeen laborategia eta beste hainbat ekitaldi.
Igandea 28, 10:30etik aurrera.

Jimmy jazz gasteiz URRIA

Ot. 25	BOB WAYNE & THE OUTLAW CARNIES
Lr. 27	PARABELLUM + PIZTU PUNK
Ig. 28	FAMILIARENGAKO ROCKA
	THE BEATLES-A ESTALGABETUZ
Az. 31	"THE DEVIL'S PARTY"
	RICHI RISCO WARM UP BY YAHAIRA

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

12

Alegria-Dulantzi
2018

ANTZERKI jaialdia

amateur

teatroamateur.com



ELCHE

OSTIRALA 2
VIRTUAL GRUPO TEATRAL
"FLORESTA"



MADRID

LARUNBATA 3
TEATRO DEL GARABATO
"DINERO"



SOPELA-BIZKAYA

IGANDEA 4
KALEKA
"BRUMAS VESPERTINAS"



MUTUZA-NAEARRA

OSTIRALA 9
KUKUMIX TEATRO
"ESCENICAS"



MADRID

LARUNBATA 10
TEATRIZZANTE
"COMO NIÑOS"



BILBAO

IGANDEA 11
ALANBIKE TEATROA
"SAL MARINA"



VALLADOLID
HAURRENTZAKO

OSTIRALA 16
KINUNA TEATRO
"KIKERIKÓ Y LOLOLILÓ"



ALICANTE

LARUNBATA 17
SEN SEN PRODUCCIONES
"DONDE NACEN LAS MARIPOSAS"



LAUDIO-ARABA

IGANDEA 18
GRUPO DE TEATRO SIROKO
"BERNARDA 5.0"



LARUNBATA 24
AMAIERA JAIA
EL MONO HABITADO Y GRUPO FOLK
DE LA ESCUELA DE MÚSICA



AZAROAK
2tik al 24ra

Ordua : 19:30 h. Haurrentzat 18:00 h.
Tokia eta Sarrerren Salmenta:
KULTUR ETXEA, ALEGRIA-DULANTZI.

